

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

A eredua

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **1h 50 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
IRAKURMEN PROBA Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez.	50 min.	20	10
IDAZMEN PROBA Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.	60 min.	30	15

- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuretzat da**.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egin bertan jartzen duena.

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

LANA JOKO BAT DA

Arrain-kaxa artean pasatzen ditu eguneko ordu asko Angel Arkotxak. Txikitatik ezagutzen zuen mundu hori aitarekin joaten zelako salmentetara, baina kofradian 1988an hasi zen lanean. Kofradian lan egiten zuen gizonezko bat gaixotu egin zen, eta orduan eskaini zioten arrainaren salmentan lan egitea. Hasieran, hiru hilabeterako, antxoaren arrantza-aldia egiteko. Laguntzen hasi zen: karroak jaso, mantenua egin... Antxoaren sasoia amaitu zen eta bertan jarraitu zuen. Gero, 1990ean tokatu zitzaion bere lehen salmenta egitea. Gaur egun Ondarroako Kalare Deuna kofradiako salmenten arduraduna da.

Turuta jotzen dute Ondarroan arraina portura sartu dela abisatzeko. Horrela egin da urte askoan. Orain dela 50 urte, erosleak emakumeak ziren. Etxean egoten ziren, eta haiei abisatzeko jotzen zen. Behin jotzen denean, hegaluzea edo hegalaburra sartu dela esan nahi du; bitan, txitxarroa, berdela, edo sardina sartu dela... Bostetik aurrera, arazo larri bat dagoela esan nahi du, sutea edo ezbeharren bat.

Saltokian lana goiz hasten da, 06:00etan. Eguneko lehen turuta 06:30ean jo behar izaten da, betiere arraina baldin badago. Orduan hasten da martxa. Lehenengo salmenta 07:00etan egiten da. Eta azkena, arraina dagoenean, 24:00etan. Orain sasoi lasaia da, eta nahiko goiz amaitzen dira salmentak. Honelako erosleak ikusten dira saltokian: eskualdeko arraindegietako erosleak, adibidez, Mutrikokoak eta Eibarkoak; esportatzaileak, arraina Espainiako estatura eta atzerrira kamioietan eramaten dutenak; eta azkenik, kontserba-lantegietakoak, arraina latan saltzeko erosten dutenak. Erosle bakoitzak bere aulkia dauka esertzeko, txirrin batekin.

Saltzaileak ipintzen du arrainaren hasierako prezioa, beste kofradietakoekin harremanetan egon ondoren zer prezio jarri erabakitzeko. Salmentak txalupaka egiten dira: txitxarroa eta berdela ekarri baditu itsasontzi batek, lehenengo txitxarro guztia salduko da, eta gero berdela. Arrantzaleak lehenengo arrain onenak botatzen ditu pisura. Saldu, kutxaka saltzen da, eta prezioa kiloka ordaintzen da. Saltzeko eta pisatzeko sistema azkarra da. Ondarroan lonja berriak egiteko proiektua dago eta aldaketak egongo dira, baina saltzeko sistema oraingoa izango da.

Arkotxak dio lanak sekulako bizitasuna duela, joko bat dela, asko gozatzen duela, batez ere salmentan. Hala ere, askotan, estresagarria da: Galizian hasi eta Hondarribira bitarteko itsasontziek ekartzen dute arraina Ondarroako kofradiara, eta gauza asko egoten dira egiteko kanpaina batzuetan. Sasoirik zoroena antxoaren sasoia da, eta berdelena ere bai, nahiz eta laburragoa izan. Eta edozein kasutan, sasoi guztietan jendearekin harremanak lantzeari garrantzi handia ematen dio arduradunak. Haserreren bat edo beste dagoenean, beharrezkoa da esku ona izatea.

IBAIBARRIAGA, Larraitx
Bizkaiko hitza, 2013ko urtarrilaren 18a. Egokitua.

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa. Aukeratu erantzuna.

1. Noiz hasi zen lanean kofradian Angel Arkotxa?

- a) 1988an, aitarekin batera.
- b) Langile bat gaixotu zenean.
- c) 1990ean lehen aldiz.

2. Zer dakigu Angelen lanari buruz?

- a) Hasierako lana salmentak egitea izan zela.
- b) Gaur egun salmenten arduraduna dela.
- c) Soilik antxoaren arrantza-aldian lan egiten duela.

3. Noiz jotzen dute turuta?

- a) Arrantza-ontziek arraina dakartenean portura.
- b) Emakumeek jotzeko abisua ematen dutenean.
- c) Bakarrik arazo larria dagoenean.

4. Nola egiten da arrainaren salmenta?

- a) Lanean hasten direnetik ordu erdira hasten da lehenengo salmenta.
- b) Lan-egun guztietan salmenta gaueko hamabietan amaitzen da.
- c) Zer saldu badago, goizeko zazprietatik gauerdia arte.

5. Zer dio testuak erosleei buruz?

- a) Ondarroako erosleak besterik ez dutela aulkia esertzeko.
- b) Espainiako eta atzerriko esportatzaileei erosten dietela arraina saltokian.
- c) Hiru motatako erosleak egoten direla salmentan.

6. Zer dio saltzeko sistemari buruz?

- a) Lonja berrietan ez dela salmentaren sistema aldatuko.
- b) Arrantzale bakoitzak erabakitzen duela kaxaren prezioa.
- c) Txalupa bakoitzeko arrain mota guztiak batera saltzen direla.

7. Gustuko al du bere lanbidea Angel Arkotxak?

- a) Bai, baina lan handia dagoela dio.
- b) Bai, antxoaren eta berdelaren sasoiak lasaiak direlako.
- c) Bai, gozatzen du lanbidez, baina ez salmentez.

8. Zer baloratzen du Arkotxak?

- a) Jendearen arteko negozioak.
- b) Jendearen arteko haserreak.
- c) Jendearen arteko harremanak.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

Arrasateko liburutegia

A

Ohiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 09:30etik 20:30era, eta

larunbat, igande, zubi eta jaiegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Azterketaldiko ordutegia

Urtarrilean, otsailean, maiatzean eta ekainean, astelehenetik ostegunera, 09:30etik 24:00etara. Ostiraletan, 09:30etik 20:30era; eta larunbat, igande eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Udako ordutegia

Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Eguneko prentsa lasai irakurtzeko prentsagunea dugu; sarrera libre da. Eta liburuak kontsultatzeko eta irakurtzeko beste gela bat dago. Bibliografia-kontsultak egiteko bi ordenagailu daude, eta sarrera libre da. Ikasteko beste toki berezi bat dago.

Ermuko liburutegia

B

Helduen liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 20:30era; larunbatean 10:00etatik 13:00etara, eta udan eta zubietan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Helduen liburutegian hiztegiak, atlasak, entziklopediak, etab. gelan bertan kontsultatzen dira.

Haur eta gazteen liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Larunbatean, 10:00etatik 13:00etara. Uda eta zubietan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Liburuak hainbat sailetan banatzen dira, oso erraz aurkitzen dira, honako koloreak dituzte: horia 0 eta 4 urte bitartekoentzat, berdea 5 eta 7 urte bitartekoentzat eta gorria 8 eta 12 bitartekoentzat, baina altzarien ezaugarriak direla eta, lehentasuna 11 urtera arteko neska-mutilek izango dute.

Aguraingo liburutegia

C

Ordutegia: 10:15etik 13:30era eta 16:30etik 19:45era, eta asteburuetan goizez bakarrik. Uztailetik irailaren erdialdera arte goizez soilik irekiko da, eta abuztuan itxita egongo da.

Liburuak irakurtzen amaitu ez baduzu, beste 15 egunez berritu dezakezu mailegua liburutegian edo Internet bitartez, Opac Web bidez. Material berezien mailegua ere beste 7 egunez luza dezakezu.

Ikasle-gela maiatzaren 2tik uztailaren 6a arte egongo da irekita, egunero 09:00etatik 22:00etara.

Erabiltzaileak prestatzeko zerbitzua. Zerbitzu horren bitartez, liburutegira datozen pertsonak zerbitzu guztiak modu autonomoan erabili ahal izatea lortu nahi da.

Horretarako, bisita gidatuak egiten dira taldeentzat, eta banakako arreta eskaintzen da kontsulta guztietan.

Lantaldean aritzeko gelak. Taldeko lana egiteko besterik ez dira. Gelak aldeztuak erreserbatu behar dira goiz zein arratsalde osorako.

Jarduerak. Herritar guztientzat antolatzen ditugu, adibidez, taldekako irakurraldiak, hitzaldiak, eztabaidak, eta abar.

1. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak.

9. Erabiltzaileei liburutegiaren funtzionamendua erakusten zaie.	A	B	C
10. Liburutegi hau zabalik dago larunbat eta igande arratsaldeetan ere.	A	B	C
11. Abuztuan ez du zerbitzurik ematen.	A	B	C
12. Azterketen garaian ordutegi berezia du astean lau egunean, gauerdia arte.	A	B	C
13. 0 urtetik 12 urte bitarteko neska-mutilentzako liburuak daude haur eta gazteen liburutegian.	A	B	C
14. Taldeko lanak egiteko gela bereziak ditu.	A	B	C
15. Prentsa zein liburuak kontsultatzera edonor sar daiteke.	A	B	C
16. Hiztegiak, entziklopediak eta horrelakoak ezin dira etxera eraman.	A	B	C
17. Liburutegiak herritarrentzako ekintzak ere antolatzen ditu.	A	B	C

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B...).

Galdera bat sobera dago.

VINCE JUARISTI

Elko (Nevada) eta Bizkaia ditu bihotzean Vince Juaristik (1969). Aita, Joe, Lekeition jaio zen, baina Elkora joan eta han bizi da gaur egun. Vincek aitarekin Euskal Herrira egin zuen bisita jaso du Back to Bizkaia liburuan.

18

Txikitatik izan dut harreman handia Euskal Herriarekin. Aitona-amonei eta osaba-izebei buruz entzuten nuen sarri: askotan kontatzen zen gure etxean aitaren haurtzaroa Lekeition edota nire amaren ama nola etorri zen Asartatik, Nafarroatik.

19

Aita Euskal Herrira eramatea erabaki nuen bi arrazoiengatik; bata praktikoa eta bestea nostalgikoa. Aitak arreba bikia zuen, Anita. Anitaren osasuna okerrera zihoala jakin nuenean, joan behar genuela pentsatu nuen. Bestalde, aitak haurtzaroko jendea eta lekuak berriz ikustea nahi nuen, jaioterriko airea arnastea.

20

Guraso batek onena nahi du seme-alabarentzat, eta alderantziz. Euskal Herrirako bidaia horretan aitak bere bizitzako bidaia biribildu du eta Euskal Herria begi berriekin ikusi du. Seme bezala nire betebeharra zen bere bizitza-bidaia osatzea.

21

Ez zen nire asmoa libururik idaztea. Bidaian aitak lo-kuluxkak egin behar izaten zituen eta bitartean nik ikusitakoa, entzundakoa, ezagututakoa, sentitutakoa koaderno batean jaso nuen. AEBetara bueltatu nintzenean, apunteak txukundu nituen gordetzeko asmoz. Txikitako lagun bati erakutsi nion eta berak animatu ninduen argitaratzera.

22

Txikitan Gabonetan dei bat egiten genuen Euskal Herrira beti. Aitak arrebari deitzen zion. Baina deia Euskal Herriatik jasotzen bagenuen, bagenekien berri txarren bat zetorrela. Horiek izan ziren urteetan izandako elkarrizketa txikiak, Facebook eta e-posta agertu arte.

23

Galdera zaila... Amerikarra naiz, euskal jatorriarekin. Ez naiz inoiz beste ezer sentitu. Baina amerikarrak arraroak gara zentzu horretan. Amerikarrak sentitzen gara. Gure herrialdearekin lotura handia dugu, bandera, konstituzioa...Baina identitate pertsonalarekin ere badugu lotura. Bi identitateak daramatzagu beti.

24

Gurasoek ingelesez hitz egiten zuten gu txikiak ginenean. Aitak badaki euskaraz, eta bere garaiko beste gizon batzuekin elkartzen denean, segituan hasten da euskaraz. Amaren aldetik, berriz, inork ez zekien, eta nik eta nire arrebek beti ingelesez hitz egin dugu.

25

Bi zatitan dago banatuta. Alde batetik, adineko gizon eta emakumeak daude. Euskal Herriatik etorri ziren Bigarren Mundu Gerraren ondoren lana bilatzeko. Beste taldea lehen belaunaldi horren fruitua da: 1960-70eko hamarkadetan jaio, AEBetan eskolatuak, unibertsitatera joan, gogor lan egin eta aukerak aprobetxatu dituztenak bizitzan aurrera egiteko.

MADINABEITIA, Monika
Argia, 2013ko urtarrila. Egokitua.

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak.

- A. Orain dela gutxi aitarekin izan zinen Euskal Herrian, ezta?
- B. Nola bururatu zitzaizun bisita horretatik liburu bat idaztea?
- C. Nola bizi izan zenuen bidaia hori?
- D. Nevadan jaioetakoa zara, Elkon, baina Euskal Herriarekin lotura handia duzu, ezta?
- E. Nolakoa da zure harremana Euskal Herriko familiarekin?
- F. Nola ikusten duzu euskal komunitatea AEBetan?
- G. Nolakoa izan zen gurasoen esperientzia AEBetara iritsi zirenean?
- H. Euskarak zer presentzia du familian?
- I. Nongoa sentitzen zara?

Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Sobera:

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

1. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu gaia eta zer ariketa mota eskatzen zaizun.
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA **ONDORENGO ORRIETAN** DAUKAZU.

ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN **APARTEKO ORRIETAN**
EGIN BEHAR DITUZU.

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.


GAIA: Udalak diru-laguntzak ematen ditu euskara ikasteko. Euskara-ikastaroa egin ondoren, diru-laguntza jasotzeko eskaera egin zenuen. Ez duzu ez erantzunik ez dirurik jaso eta udaletxera joatea erabaki duzu.

Udaletxean inprimakia eman dizute kexa ipintzeko. Azaldu ezazu zer gertatu zaizun eta eskatu konponbidea.

■ 2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure lankide baten mezua jaso duzu. Aste honetan kanpoan dabil lanean eta lantokian zer moduz zabiltzaten jakin nahi du.



Idatzi mezua

Didati Gorde Baztertu

Norentzat: Gehitu Cc | Gehitu Bcc

Gaia: Erantsi fitxategia

« Testu arrunta Egiaztatu ortografia ▼

Egun on:

Badakizu aste honetan Bartzelonan nabilela eta ez naiz zuekin egongo lantokian. Zer moduz doa astea? Izan duzue arazoren bat lanean? Amaituko duzue hasitako lana?

Zer daukagu datorren asterako? Astelehenean hor izango naiz eta, joan aurretik, jakin nahi nuke zer lan daukagun.

Gauza asko daukat zuei kontatzeko.
Laster arte.

Kepa

Erantzun iezaiozu lankideari. Azaldu zertan zabiltzaten, arazorik izan duzen, noizko amaituko duzen lana, datorren asteko lana zein izango den...

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

1. HE / IRAKURMENA

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: «LANA JOKO BAT DA»

1.	B	5.	C
2.	B	6.	A
3.	A	7.	A
4.	C	8.	C

- 2. ariketa: Lotu esaldiak eta testuak
- Irakurgaia: « UDAL LIBURUTEGIAK »

ESALDIAK	9	10	11	12	13	14	15	16	17
TESTUAK	C	A	C	A	B	C	A	B	C

- 3. ariketa: galderak eta erantzunak lotu.
- Irakurgaia: « VINCE JUARISTI »

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	D	A	C	B	E	I	H	F

G. galdera sobera dago.